# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena

Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa

Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilak 19**

**Vitoria-Gasteiz, 19 de enero de 2021**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

# GOBERNUAK BERE SAILETAKO ZAZPIREN EGITURA BERRIA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Eusko Jaurlaritza eratzen duten sail gehienen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duten dekretuak onetsi ditu.

Zehazki, honako sail hauen antolamendu- eta funtzio-esparrua adostu da:

- Lehendakaritza
- Segurtasun Saila
- Lan eta Enplegu Saila
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

Gaur onetsi diren dekretuak Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretutik datoz; 18/2020 Dekretuak sail bakoitzaren funtzioak eta jarduketa-arloak zehazten ditu.

Egitura-dekretu berriak datorren urtarrilaren 29ko EHAAn argitaratuko dira.

**Lana eta Enplegua**

## GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU DU METAKRILATOZKO HOLTZAK LARRIALDIKO PROZEDURA BIDEZ EROSTEA, LANBIDEREN BULEGOETAKO LANGILEAK BABESTEKO

Lehendakariordeak larrialdiko kontratu bat aurkeztu dio Gobernu Kontseiluari, hark onar dezan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin zuen kontratu hori, Covid-19k eragindako pandemia-egoerari aurre egiteko.

Kontratuari esker, metakrilatozko holtz homologatuak erosi ahal izan ziren, 46.059,43 euroko kostuarekin. Horri esker, Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan aurrez aurreko lan-jarduera egiten duten Lanbideko langileei COVID-19ren aurkako babes-bitartekoak eman ahal izan zitzaizkien.

Kontratu hori larrialdiko prozedura baten bidez gauzatu zen irailaren 16an, 463/200 Errege Dekretuan adostutako alarma-egoeraren ondorioz, eta Prebentzio Zerbitzuak jarduera presentzialaren itzuleran lan-espazioak berrikusteari buruz emandako jarraibidean oinarrituta.

**Hezkuntza**

## LANKIDETZA-HITZARMENA, EUROPAKO GIZARTE FUNTSAK KOFINANTZATUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimena eman du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Hezkuntza Sailaren eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzeko. Hitzarmen honen bidez, Hezkuntza Sailak burutzen dituen zenbait hezkuntza-jarduera Europako Gizarte Funtsak kofinantzatzeko prozedura arautzen da. Jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoa 3.845.502 eurokoa da, eta honako hauek dira:

- Lanbide Heziketaren kalitatea hobetzea
- Lanbide Heziketa Duala
- Gaitasun profesionalak ebaluatzea eta egiaztatzea
- Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza, hobekuntza eta mugikortasuna
- Hezkuntzaren aurrerapenerako eta laguntzarako orientazio- eta indartze-programa

Indarrean dagoen Europako araudiaren arabera, Europako funtsen kofinantzaketa %50ekoa da EAEren kasuan. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa da Europako Gizarte Funtsen laguntzak kudeatzeaz arduratzen den erakundea, kasu honetan 2014-2020 aldirako (2023ra arte dago indarrean) Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntzako Eskualde Anitzeko Programaren 3. ardatzean jasorikoak *("Hezkuntzan eta prestakuntzan egin beharreko inbertsioa"* deituriko ardatza*)*. Kofinantzatutako jarduera guztiak aipatutako ardatzeko 10. helburu tematikoan jasoak daude: "*Gaitasunak eskuratzeko eta etengabeko ikaskuntzarako hezkuntzan, prestakuntzan eta Lanbide Heziketan inbertitzea*" helburuan.

Europako Gizarte Funtsak Europar Batasun osoan finantzatzen ditu hainbat ekimen, hezkuntza eta prestakuntza hobetzeko, eta gazteek beren heziketa-zikloa osa dezaten eta lan-merkatuan lehiakorragoak izateko trebetasunak lor ditzaten bermatzeko. Ildo horretan, lehentasun nagusietako bat Lanbide Heziketak eta Unibertsitate Irakaskuntzak eskaintzen dituzten aukerak hobetzea da.

**Hezkuntza**

## OTXARKOAGA LANBIDE ESKOLARI DIRULAGUNTZA, HONEN ESKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bileran onartu du 300.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea Otxarkoaga Lanbide Eskolari, ikastetxe honek burutzen dituen hezkuntza-jarduera espezifikoak finantzatzeko. Otxarkoaga Lanbide Eskolak, Bilboko Otxarkoaga auzoan dagoen DBHko eta Lanbide Heziketako hezkuntza-eskaintza bakarrak, bere sorreratik jartzen du arreta berezia egoera ahulenean dauden pertsonei hezkuntza-eskaintza egokia emateko ahaleginean (eskola-porrota, gizarte-arazoak, hezkuntza-premia bereziak eta espezifikoak, etab.).

Honako hauek dira ematen dituen hezkuntza-programak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Helduen Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa (DBHko graduatua lortu ez duten ikasleentzat), Oinarrizko Lanbide Heziketa Egokitua (hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat), Erdi-mailako Heziketa Zikloak, eta 2019-2020 ikasturtetik Goi-mailako Heziketa Ziklo bat.

Ikastetxe honetako ikasleen berezitasunen ondorioz, hauek aurrez ezagutu dituzten hezkuntza-eskemak gainditzeko lanari heldu behar diote ikastetxean, eta ardatz berriekin lan egin, hala nola: metodologiak eta ebaluatzeko moduak birplanteatzea; material didaktiko propioa sortzea; ikasle bakoitzak lehendik dituen gaitasunak oinarri hartuta lan pertsonalizatua egitea; edo ikasleei gaitasunak hobetzea ahalbidetzen dieten zeharkako gaitasunak lantzea.

Hezkuntza-jarduera horrek dedikazio pertsonala eskatzen du, hezkuntza- eta orientazio-ekintza berezia ahalbidetuko duena, eta, era berean, metodologia aktiboa, irakaskuntza indibidualizatzea, ikasleak tutorizatzea, familiei laguntzea eta kanpoko profesionalekin koordinatzea ahalbidetuko duten baliabide materialak ere behar ditu. Horrek guztiak, aldi berean, baliabide ekonomiko gehigarriak eskatzen ditu, Hezkuntza Administrazioarekin sinatutako hezkuntza-itunak barne hartzen ez dituenak. Beraz, Hezkuntza Sailak beharrezko jotzen du ezohiko dirulaguntza honekin ikastetxeak egiten duen lanari laguntzea.

**Osasuna**

## EUSKO JAURLARITZAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO ADMINISTRAZIO-LANGILEENTZAKO BERARIAZKO OSAGARRIA ONETSI DU

- **Kategoria horri esleitutako ordainsariaren % 4 igotzea dakar**

Gobernu Kontseiluak, gaur, abenduaren 10ean Osakidetzaren Mahai Sektorialean hartu zen akordioa berretsi du; haren bidez, parekatu egiten dira Lehen Mailako Arretako administrazio-langileen eta Ospitaleko Arretakoen soldatak. Horretarako, Lehen Mailako Arretako administrazio-langileen ordainsaria % 4 areagotzeko osagarria sartu da.

Neurri horrek urtean 1,5 milioi euro inguruko kostua eragingo du, horren inguruan eginiko memoria ekonomikoak dakarrenaren arabera, eta neurri hori hartzeko motiboa izan da Osakidetzan arreta integratuko ereduari bide emateko egin diren aldaketak. Aldaketa horien ondorioz, lehen bereizita zeuden laguntza-maileetako profesionalek –zehazki Lehen Mailako Arretaren eta Ospitaleko Arretaren kasua– eremu funtzional berean batu eta eginkizunak, zereginak eta espazio fisikoa partekatzen dituzte.

Neurri hori berresteak babestu egiten du Eusko Jaurlaritzak Lehen Mailako Arretaren alde egiten duen apustua, eta beste urrats bat gehiago da, Osasun Sailak laguntza-eremu horren alde duen konpromisoaren erakusle, legealdi honetarako esparru estrategikoarekin bat etorriz.

Eusko Jaurlaritzaren konpromiso horren adibide argi bat honako hau da: pasa den astean, Donostiako Aiete auzoko osasun-zentro berria ireki zen, eremuko herritarren eskariei erantzuteko eta, hala, zerbitzu irisgarria eta kalitatekoa bermatzeko herritarrei.

Aurtengo urterako, bigarren urtez jarraian, Lehen Mailako Arretarako inbertsioetara 21 milioi euro bideratzea aurreikusten da; horrela, osasun-zentroetako zaharberritze- eta hobekuntza-lanekin jarraitu ahalko da, bai eta ekipamenduak modernizatzen ere.

**Presidencia**

## EL GOBIERNO APRUEBA LA NUEVA ESTRUCTURA DE SIETE DE SUS DEPARTAMENTOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy los decretos por los que se establece la estructura orgánica y funcional de la mayor parte de los departamentos que componen el Ejecutivo vasco.

En concreto se ha acordado el nuevo marco organizativo y funcional de:

- Lehendakaritza
- Departamento de Seguridad
- Departamento de Trabajo y Empleo
- Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno
- Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes
- Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales
- Departamento de Turismo, Comercio y Consumo

Los decretos aprobados hoy derivan del Decreto 18/2020 de 6 de septiembre, del Lehendakari, por el que se determinan las funciones y áreas de actuación de cada uno de los departamentos.

Los nuevos decretos de estructura se publicarán en el BOPV del próximo 29 de enero.

**Trabajo y Empleo**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA COMPRA POR PROCEDIMIENTO DE EMERGENCIA DE MAMPARAS DE METACRILATO PARA LA PROTECCIÓN DEL PERSONAL DE LAS OFICINAS DE LANBIDE

La Vicelehendakari ha presentado al Consejo de Gobierno para su aprobación un contrato de emergencia que fue realizado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para hacer frente a la situación de pandemia provocada por la Covid-19.

El contrato posibilitó la adquisición mamparas de metacrilato homologadas con un coste de 46.059,43 euros que permitieron dotar de medios de protección frente al COVID-19 al personal de Lanbide que realiza la actividad laboral presencial en las distintas oficinas del Servicio Vasco de Empleo.

Este contrato se hizo efectivo, por procediento de emergencia, con fecha 16 de septiembre como consecuencia del estado de alarma acordado en el Real Decreto 463/200 y en base a la Instrucción del Servicio de Prevención sobre revisión de los espacios de trabajo en la vuelta de actividad presencial.

## Educación

### CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA EL DESARROLLO DE LAS ACTUACIONES EDUCATIVAS COFINANCIADAS POR EL FONDO SOCIAL EUROPEO

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y el Ministerio de Educación y Formación Profesional. Por medio de este convenio se articula el procedimiento para la cofinanciación, por parte del Fondo Social Europeo, de la implantación de diversas actuaciones educativas llevadas a cabo por el Departamento de Educación, y que cuyo importe estimado asciende a 3.845.502 euros. Las actuaciones objeto de esta cofinanciación son las siguientes:

- Mejora de la calidad de la Formación Profesional
- Formación Profesional Dual
- Evaluación y Acreditación de las Competencias Profesionales
- Formación, Perfeccionamiento y Movilidad del Profesorado FP
- Programa de Orientación y Refuerzo para el Avance y Apoyo de la Educación

En base a la normativa europea vigente, la cofinanciación de los fondos europeos es del 50% en el caso de la CAV. El Ministerio de Educación y Formación Profesional es el organismo que se ocupa de gestionar las ayudas del Fondo Social Europeo programadas en el Eje 3 *“Inversión en educación y formación”* del Programa Plurirregional de Empleo, Formación y Educación para el periodo 2014-2020, y que sigue en vigor hasta 2023. Todas las actuaciones cofinanciadas están comprendidas en el Objetivo Temático 10 del citado Eje, objetivo “*invertir en educación, formación y formación profesional para la adquisición de capacidades y el aprendizaje permanente”.*

El Fondo Social Europeo financia iniciativas en toda la Unión Europea para mejorar la educación y la formación, y para garantizar que los jóvenes completen su ciclo formativo y obtengan habilidades que les hagan ser más competitivos en el mercado laboral. En este sentido, una de las principales prioridades es mejorar las oportunidades que ofrecen la Formación Profesional y la Enseñanza Universitaria.

## Educación

### SUBVENCIÓN A LA ESCUELA PROFESIONAL OTXARKOAGA PARA LA FINANCIACIÓN DE SU ACTIVIDAD EDUCATIVA ESPECÍFICA

El Consejo de Gobierno ha acordado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la concesión de una subvención directa, por un importe de 300.000 euros, a la Escuela Profesional Otxarkoaga para la financiación de la actividad educativa y docente específica que desarrolla el centro.

La Escuela Profesional Otxarkoaga, única oferta educativa de ESO y FP existente en el barrio bilbaíno de Otxarkoaga, se ha caracterizado desde sus orígenes por la respuesta educativa que ofrece, prestando especial dedicación a las personas en situaciones más desfavorecidas (fracaso escolar, problemática social, necesidades educativas especiales y específicas, etc.).

Los programas educativos que imparte este centro son: Educación Secundaria Obligatoria, Educación de Personas Adultas, Formación Profesional Básica (para el alumnado que no ha logrado el Graduado en ESO), Formación Profesional Básica Adaptada (para el alumnado con necesidades educativas especiales), Aulas de Aprendizaje y Tareas, Ciclos Formativos de Grado Medio, y desde el curso 2019-2020 un Ciclo Formativo de Grado Superior.
La especificidad del alumnado de este centro educativo conduce a que su actividad ha de comenzar por romper con los anteriores esquemas educativos que ha conocido este alumnado y a trabajar con nuevos ejes, como son: el replanteamiento de las metodologías y las formas de evaluación; generación de material didáctico propio; trabajo personalizado a partir de las competencias que ya tiene cada alumno o alumna; o el trabajo de unas competencias transversales que le permite al alumnado mejorar sus competencias intrapersonales e interpersonales, entre otros.

Por tanto, esta actividad educativa exige una dedicación personal que posibilite la acción educativa-orientadora tan especial, y precisa asimismo de unos medios materiales que posibiliten la metodología activa, la individualización de la enseñanza, la tutorización del alumnado, el acompañamiento de las familias y la coordinación con profesionales externos. Todo ello exige, a su vez, unos recursos económicos adicionales que no están cubiertos por el concierto educativo suscrito con la Administración Educativa con carácter general, por lo que el Departamento de Educación considera necesario contribuir a la labor que desempeña el centro beneficiario con esta subvención de carácter excepcional.

**Salud**

## EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL COMPLEMENTO ESPECÍFICO PARA EL PERSONAL ADMINISTRATIVO DE ATENCIÓN PRIMARIA

- **Supone un incremento del 4% de la retribución asignada a su categoría**

El Consejo de Gobierno ha ratificado hoy el acuerdo adoptado en la Mesa Sectorial de Osakidetza el 10 de diciembre con el que se equipara el sueldo del personal administrativo de Atención Primaria con el de Atención Hospitalaria a través de la inclusión de un complemento que aumenta un 4% la retribución de los primeros.

Esta nueva medida, que tendrá un coste anual aproximado de 1,5 millones de euros conforme a la Memoria Económica elaborada al respecto, ha sido motivada por los cambios llevados a cabo en Osakidetza para favorecer un modelo de atención integrada. Los mismos han llevado a profesionales procedentes de niveles asistenciales antes diferenciados, como era el caso concreto de Atención Primara y Atención Hospitalaria, a confluir en un mismo ámbito funcional y compartir tareas, funciones e incluso espacio físico.

La ratificación de esta nueva medida respalda la apuesta del Gobierno Vasco por la Atención Primaria y supone un nuevo paso que refleja el compromiso del Departamento de Salud por este ámbito asistencial, en sintonía con el Marco Estrategico para la presente legislatura.

Ejemplo claro de este compromiso del Gobierno Vasco, la semana pasada abrió sus puertas el nuevo centro de salud en el barrio Aiete de Donostia que da respuesta a las peticiones de los vecinos de la zona, garantizando así un servicio accesible y de calidad para la ciudadanía.

Para este año, por segundo año consecutivo, está previsto destinar 21 millones de euros a inversiones en Atención Primaria, lo que permitiría continuar con las reformas y mejoras de los centros de salud, así como la modernización de los equipamientos.